



EKIN DEZAGUN

Aurretiazko oharra:

- Prestatu FAO erakundearen *La huella del desperdicio de alimentos* bideoa, gelan ikusteko.
<https://www.youtube.com/watch?v=7uhicBad4VM>

Prestaera:

- Ikasleak taldeka bildu, eta hauxe adierazi:
«Jardueretan ikusi duzue zein handia den elikagaiak alferrik botatzearen arazoa, eta zer-nolako erantzukizuna daukagun kontsumitzaileok gai horren inguruan. Gu geu munduan gosea eragiten duen katearen maila bat gara. Dena den, gogoan izan arazoarekin zerikusia daukagun arren, konponbidearekin ere badugula zerikusia. Mundu global batean bizi garenez, egiten dugun guztiak eragina du gure inguruan eta gure ingurukoengan. Arduraz jokatu behar dugu, ekin egin behar dugu, gure esku dagoelako egoera aldatzea. Taldeka, pentsa itzazue gure inguruan elikagaiak alferrik botatzeari uzteko ekintza zehatzak. Adibidez:
Supermerkatuan
Etxean, otorduetan
Bilkuretan (urtebetetzeetan, ospakizunetan...)
Jatetxe batera joaten garenean...

Ekintza horiek zeuok eta zuen ingurukoek egiteko modukoak izan behar dira.»

- Gero, bideoa ikusi, eta utzi taldean lantzen. Jar dezatela proposamen bakoitza kartoi mehe batean.
- Talde guztiak euren ekintzak prest dauzkatenean, taldeko kide batek proposamena azalduko die gelakoei.
- 3. jarduerako titularrak bezalaxe, ikasleek proposatutako ekintza hauek klipmetrajeak egiteko erabil ditzakezue.